

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

*Santa Ana egoitza eta aldapeta areako eraikina komunikatzeko pasarelaren eta egoitzako sarrera berriaren xehetasun azterketa. Behin betiko onespena.*

2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion Santa Ana egoitzaren eraikinaren eta Aldapeta areako eraikinaren arteko lotura-pasabidea eta egoitzaren sarbide berriko xehetasun azterketari; Zarautz Lur SA sozietate publikoak abiarazi zuen espediente hori.

Espedientea jendaurrean jarri zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Behin betiko onespenerako dokumentua aurkeztu dute. Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak informatu du hasierako onespenerako akordioan ezarritako baldintzak bete dituztela.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez,

ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onespena ematea Santa Ana egoitzaren eraikinaren eta Aldapeta areako eraikinaren arteko lotura-pasabidea eta egoitzaren sarbide berriko xehetasun azterketari; Zarautz Lur SA sozietateak abiarazi zuen espediente hori.

Onartutako dokumentua 2017ko apirilako data dauka; Marta Merino, Humberto Miguel eta Xabier Uranga arkitektoek sinatu dute.

*Bigarrena.* Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Halaber, behin betiko onspenerako akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian jakitera emango da.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabakia behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarautz, 2017ko ekainaren 19a.—Alkatea. (4459)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Estudio de detalle para la pasarela de comunicación entre la Residencia Santa Ana y el edificio del área de Aldapeta y para el nuevo acceso a la residencia. Aprobación definitiva.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 12 de junio de 2017, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 3 de abril de 2017, aprobó inicialmente el estudio de detalle para la pasarela de comunicación entre la residencia Santa Ana y el edificio del área de Aldapeta, y para el nuevo acceso a la residencia, promovido por la sociedad pública Zarautz Lur SA.

El expediente fue expuesto a información pública. No se presentaron alegaciones.

Se ha presentado el documento para la aprobación definitiva. El Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente ha informado que cumple las condiciones impuestas en el acuerdo de aprobación inicial.

Previo análisis y deliberación del expediente, la Junta de Gobierno Local por unanimidad,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitiva el estudio de detalle para la pasarela de comunicación entre la residencia Santa Ana y el edificio del área de Aldapeta, y para el nuevo acceso a la residencia, promovido por Zarautz Lur SA.

El documento aprobado es el de fecha de abril de 2017; está suscrito por la arquitecta Marta Merino y los arquitectos Humberto Miguel y Xabier Uranga.

*Segundo.* Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente, el acuerdo se dará a conocer en el diario de mayor difusión del territorio histórico.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra el presente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarautz, a 19 de junio de 2017.—El alcalde. (4459)